

# **BARNE ERREGIMENENKO ARAUDIA**

**BILBO, 1996ko EKAINA**

## I.

*Estatutuek zehaztutako lege-markoaren barruan, Araudi honen xedea da bizitza soziala modu orokorrean erregulatzea ahalik eta bizikidetzat onena lortzeko; horretarako, bazkideen eskubide eta betebeharrak ezartzen ditu instalakuntzak, lokalak eta zerbitzuak behar bezala erabil ditzaten.*

## II.

*Bazkide guztiek bete beharko dituzte bai Araudi hau eta bai Zuzendaritza Batzordeak (bere eginkizunen ondorioz edo Biltzar Nagusiaren akordioak gauzatzeko) egindako azalpen edo aldaketa xedapen guztiak.*

## III.

*Zuzendaritza Batzordeak ebatziko ditu Araudi hau interpretatzean edo aplikatzean sorturiko zalantza guztiak.*

# ARAUAK

## 1go artikulua- SARRERA

Kluberako sarrera Estatutuetan ezarritako bazkide mota desberdinei mugatuta dago.

### GONBIDATUAK:

Bazkideek (salbuespen bezala) gonbidatuak ekar ditzakete Klubera. Horretarako, Klubaren bulegoan edo sarrerako atean, dagokion bertaratze edo gonbidapen txartela lortu beharko du, zeinaren prezioa eta modalitatea Zuzendaritza Batzordeak finkatuko baitu. Gainera, gonbidatuek bazkideei exijitzen zaien prezio bera ordaindu beharko dute instalakuntzak erabiltzearen truke.

Klubera gonbidaturen bat ekartzen duen bazkidea izango da haren jarreraren erantzule, eta bere ardura izango da hark sor ditzakeen kalte-galerak ordaintzea.

Guztiz debekatuta dago Klubeko eraikinean animaliak sartzea eta objektu zaratatsuak erabiltzea edo instalakuntzei egokia ez den erabilera bat ematea, ekintza horiek bizikidetzaren soziala asaldatu baitezakete. Era berean debekatuta dago Klubeko kirol instalakuntzetan erretzea.

## 2. artikulua- ORDUTEGIA.

Kluba zabalik egongo da goizeko 7:00etatik gaueko 23:00ak arte.

Zuzendaritza Batzordeak ohiko ordutegia luzatu edo laburtzea proposatu ahal izango du, neurri hori eskatzen duten beharrian sozialen arabera. Gainera, instalakuntzak ixtea adostu dezake arrazoi justifikatuak badauzka, baina horretarako Batzar Orokorra deitu beharko du eta haren onspena lortu.

Taberna eta Jatetxe zerbitzuen ordutegiak ere Zuzendaritza Batzordeak finkatuko ditu egoera bakoitza kontuan hartuta, eta hala badagokio, instalakuntzen ustiapena esleitu zaion pertsonarekin adostuta.

## 3. artikulua- BAZKIDEAK. BAZKIDE MOTAK.

Estatutuekin bat egirik eta adinaren edo Klubak onartutako bestelako baldintzen arabera, ondoko bazkide motak bereizten dira:

Zenbakidunak: Adinez nagusi diren guztiak.

Bazkidegaiak: 14tik 17 urtera bitartekoak.

Senitarteko bazkidegaiak: 14tik 17 urtera bitartekoak (aita edo ama Klubeko bazkidea bada)

Haurrak: 8 urtetik 13ra bitartekoak.

Senitarteko haurrak: 5 urtetik 13ra bitartekoak (aita edo ama Klubeko bazkidea bada)

Ohorezkoak: Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitakoak.

Bazkide guztientzat derrigorrezkoa izango da:

A).- Sozietateko Estatutuak, Barne Erregimeneko Araudia eta Zuzendaritza Batzordeak emandako xedapen guztiak betetzea.

B).- Zerbitzuak erabiltzeko finkatutako prezioak ordaintzea.

C).- Klubeko instalakuntza guztietan behar bezala eta pertsona zein objektuekiko errespetu osoz jokatzeko.

D).- Sarrerako gainbegiratzaileari bazkide karneta erakustea eta identifikatzea, baita Klubaren barruan ere, hala eskatuz gero.

E).- Klubeko langileek euren lanean ari direla eginiko adierazpen guztiak betetzea.

F).- Adinari dagozkion instalakuntzak eta dependentziak soilik erabiltzea.

G).- Oro har Klubeko Estatutuaren zehaztutako arau guztiak betetzea.

- Bazkide ABONATUEK, IBILTARIEK edo ALDI BATEKOEK, Klubeko instalakuntzak erabiltzeko eskubidea dute bere kategoriako bazkideek bezalaxe, eta gainerako bazkideen diziplina araubide berbera jarraitu beharko dute.

#### 4. artikulua- ERABILPEN SOZIALEKO ETA KIROL ERABILPENEKO EREMUAK.

Hartarako zehaztutako kategoria edo adinaren arabera, bazkideek Klubeko kirol instalakuntzak, aretoak eta zerbitzuak erabiltzeko eskubidea dute horietako bakoitzerako zehaztutako arauak jarraituz. Araudia ongi ikusteko moduan ezarriko da kirola egiteko edo aisialdirako instalakuntzetan, eta hala egongo ez balitz, pertsonalki jakinaraziko zaio bazkideari, kirol modalitatea edo diziplina praktikatzeko jarritako langile arduradunaren bidez eta halakorik ez balego, Klubeko gainbegiratzailearen edo kudeatzailearen bitartez.

Horrela bada, eremu edo areto bakoitzak funtzio propioa dauka, eta bazkideak funtzio horretarako erabiliko du. Funtzio hori, ordea, Zuzendaritza Batzordeak alda dezake testuinguruaren arabera:

Aurrerago aipatutakoa baztertu gabe, kirol instalakuntzak erabiltzerakoan, errespetatu egin beharko dira Araudian modalitate bakoitzerako ezarriko diren baldintzak.

#### 5. artikulua- ERREKLAMAZIOAK ETA IRADOKIZUNAK.

Klubean iradokizun ontzi bat egongo da, bazkideek euren oharrak eta iradokizunak egin ditzaten.

Era berean, Bazkideek Erreklamazio Liburua erabili ahal izango dute, beren kexak edo erreklamazioak bertan adierazteko.

Zuzendaritza Batzordeak erreklamazioa egin duen bazkideari erantzun diezaion (iradokizunak edo oharrak ez dira erantzungo), azken honek argi eta garbi adierazi beharko ditu izen-abizenak edo bazkide zenbakia; halakorik egiten ez badu, Batzordeak ez du inolako obligaziorik izango.

#### 6. artikulua- JANTZIAK.

Kirol, jarduera edo toki bakoitzean jantzi eta oinetako egokiak erabili beharko dira, kirol diziplina bakoitzaren berariazko Araudian ezarritakoaren arabera. Berariazko araudirik ez badago, Araudi honetako 4. artikulua 1go paragrafoan adierazitakoaren arabera jokatu beharko du bazkideak.

Kirola egiteko jantziak (galtza motzak, entrenamendu trajea, etab.) kirola egiteko tokietan edo igarotzea derrigorrezkoa den lekuetan bakarrik eraman daitezke soinean, eta salbuespen kasuetan, Kafetegian eta Areto Sozialean ere bai.

Halaber debekatuta dago kirola egiteko aretoetara sartzea kaleko arroparekin eta kirola egiteko egokiak ez diren oinetakoekin.

#### 7. artikulua- ALDAGELAK.

Dagokien funtzioaz gain, aldageletan arropa gordetzeko zerbitzua dago, baita ere telebistako zirkuitu itxiaren bidez zaindutako barra-pertxa kolektiboak edo arropa gordetzeko bakarkako armairuak.

Aldagelen funtzio berezia kontuan izanik eta guztien interes eta onurarako, bazkideei eskatzen zaie ahalik eta denbora gutxien pasa dezatela han, zirkulazioa arinagoa eta zerbitzua erosoago izan dadin.

Iragarki-tauletan ezarriko dira indarrean dauden erabilpen arauak.

Klubak ez du erantzukizunik hartzen aldageletan utzitako baliozko objektuen gainean, baldin eta ez badira Klubeko harreran uzten.

#### 8. artikulua- ARETO SOZIALA, TABERNA ETA JATETXEA.

Areto Soziala bazkideek eta gonbidatuek soilik erabili ahal izango dute eta ezingo da beste inor egon han edo hango zerbitzurik (prentsa, mahaiko jokoak, telebista aretoa, etab.) erabili.

Arau-hauste hori arintzeko, horretaz ohartzen den bazkideak harrerako arduradunari adierazi beharko dio gertatutakoa, eta hark bazkide ez denari eskatu beharko dio berehala atera dadila Klubeko instalakuntzetatik.

Horrela bada, kafetegi eta jatetxe zerbitzuak edonork erabili ahal izango ditu, baina ez areto sozialak eskaintzen dituen gainerako zerbitzuak, bazkideentzat eta hauen gonbidatuentzat bakarrik izango baitira.

Tabernako eta Jatetxeko kontsumizioen prezioak bat etorriko dira Zuzendaritza Batzordeak onartutako prezio-zerrendan adierazitakoarekin, edo halakorik ez balego, aipatu zerbitzu sozialaren ustiapena daukan pertsonak adieraziko ditu.

Gutziz debekatuta dago Tabernatik edo Jatetxetik ondokoak ateratzea: edalontziak, kristalezko botilak edota bestelako objektu hauskorak, hautsiz gero arriskutsuak izan baitaitezke Klubeko erabiltzaileen osotasun fisikoarentzat.

#### 9. artikulua- JOKO-ARETOA ETA LIBURUTEGIA.

Bi dependentzia horiek ere bazkide eta gonbidatuei mugatuta daude, eta areto bakoitzarentzako araudia errespetatu beharko da. (Ordura arte 4. artikuluko 1go paragrafoan ezarritakoa bete beharko da).

#### 10. artikulua- IGERILEKUA ETA SAUNA.

Igerilekua eta bertako zerbitzuak erabiltzean, eremu horretarako bereziki xedatutako arauak bete beharko dira, eta arau horiek bertan egongo dira ikusgai.

Gutziz debekatuta dago bainatzeko arropekin ibiltzea igerileku-eremutik kanpo.

Uretan sartu baino lehen, derrigorrezkoa da dutxatzea eta txanoa zein bainatzeko oinetakoak (txankletak, etab.) erabiltzea.

Saunan (bi modalitateetan, doakoa eta ordaindutakoa) eremu horretarako bereziki xedatutako arauak bete beharko dira, eta arau horiek bertan egongo dira ikusgai.

Klubak ez du erantzukizunik izango erabiltzailearen batek igerilekua edo sauna behar ez bezala erabiltzeagatik sor daitezkeen kalteen gainean.

#### 11. artikulua- KIROL INSTALAKUNTZAK.

Klubaren lehentasun nagusia kirol jarduerak praktikatu eta sustatzea izanik, gaur egun dauden eta etorkizunean egongo diren instalakuntzetan praktikatu ahal izango dira bai instalakuntza bakoitzaren xede den kirola eta baita berauetan praktika daitezkeen beste hainbat ere (adibidez, futbitoa, saskibaloia, etab.).

Instalakuntzetan beste kirol modalitate batzuk praktikatzeko erabilpen arauak ezagutzera emango dira 4. artikuluko 1go paragrafoan ezarritakoaren arabera edota etorkizunean garatuko diren bestelako Araudien bitartez.

## 12. artikulua- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK (DIZIPLINA-ARAUBIDEA).

Bazkide guztien onerako eta Klubeko jarduerak ahalik eta ongien garatu daitezten, beti ere elkarrenganako errespetua gordez, Zuzendaritza Batzordeak zigor-arau batzuk ezarri beharra dauka arau-hausteren bat gertatzen denerako, **ESTATUTU SOZIALETAKO 78. artikuluan** aurreikusitakoari jarraituz.

Edonola ere, kalte-galerak eragin dituen bazkidea bera izango da kaltetuari indemnitazioa ordaindu beharko diona. Legea betetzearen Club Deportivo erakundea izango balitz kalteak ordaintzeko erantzukizuna duena, zigor-kodea betetzearen kalterik gabe, dagozkion lege-ekintzak martxan jarriko ditu ordaindutako zenbatekoa ondare sozialera itzultzeko.

Zuzendaritza Batzordea da erabakia hartzeko eskumena daukana. Hala ere, Zuzendaritza Batzordeak oro har DIZIPLINA BATZORDEARI uzten dio funtzio hori. ARAU-HAUSTE OSO LARRIEN kasuan, berriz, bazkide baten behin betiko kanporatzea proposatuko balitz, horretarako behar bezala deitutako ZUZENDARITZA BATZORDEAK ebatzi beharko luke auzia, eta kasu horretan, bertaratutakoen bi hereneko gehiengoz hartuko litzateke erabakia.

Jarrera edo diziplina faltak eta Estatutuak, Barne Erregimeneko Araudia edota bestelako Araudiren bateko arau-hausteak lau mailatan sailkatzen dira: ARINAK, ERDI-MAILAKOAK, LARRIAK eta OSO LARRIAK.

Faltak zigortzeko, DIZIPLINA BATZORDEAK ESPEDIENTE baten instrukzioa bideratuko du, jarraian datozen artikuluekin eta dagokion atalean adierazitako zigorrekin bat eginik eta artikuluko honetako 2. paragrafoan aurreikusitako ordainketa eskatzea baztertu gabe.

Datozen artikuluetan ageri den falta eta zigor zerrenda ez da itxia eta aldatu egin daiteke. Zuzendaritza Batzordeak edo Diziplina Batzordeak bestelako egoerak proposa diezazkiokete Biltzar Orokorrari, baldin eta bazkideak salatutako ekintza zigortzeko modukoa dela uste badute eta ekintza hori Araudi honetan ageri ez bada.

Espedientea beti jakinaraziko zaio (idatziz ala ahoz) interesatuari (ahozko jakinarazpenen kasuan, alegazioek behar bezala jasota geratu beharko dute) eta BATZORDEAK behar diren eginbide guztiak gauzatuko ditu tipifikatutako gertakaria eman dela eta salatutakoak egin duela ziurtatzeko. Edonola ere, gertakaria salatu eta ebatzi bitartean ez dira hogeita hamar (30) egun baliodun baino gehiago igaroko eta, hala badagokio, ezarritako zigorra berehala sartuko da indarrean.

Ebazpenak Bazkidea zigortuko balu, ebazpenaren aurkako errekurtsua jartzeko aukera izango du, idatziz eta Zuzendaritza Batzordearen aurrean, ebazpena jakin eta bost (5) eguneko epean; edonola ere ebazpena indarrean sartuko da. Organo horren

ebazpena gehienez ere hiru (3) eguneko epean emango da, eta ezingo da errekurtsorik jarri bere aurka, Legeetan aitortutako ekintza judizialak baztertu gabe.

#### **A).- FALTA ARINAK:**

Ondoko ekintza edo portaerak **hitzezko kargu-hartzearekin** zigortuko dira:

- Klubari ez jakinaraztea helbide edo banku-helbideratze aldaketak; kasu honetan bankuko hartu-agirien itzulketak eragindako gastuak ordainarazi ahal izango zaizkio.
- Instalakuntzen zein materialen zaintza edo garbiketan eragina duten deskuido txikiak.
- Norbere garbitasun falta.
- Instalakuntzetan egiten ari den kirol-jarduerarako egokia ez den arropa janzte, eta Araudi honen 6. artikuluan arropari buruz ezarritako arauak haustea.
- Adinarekin bat ez datozen instalakuntzetan edo aretoetan egotea.
- Instalakuntzetan edo aretoetan egotea itxiera ordua igaro ondoren.
- Aulkiak edota bestelako altzariak dauden aretoetatik mugitzea.
- Jateko prestatutako aretoetatik at jatea.
- Igerilekuetan, sarreran, aldageletan edo oro har egokiak ez diren tokietan, gainerakoei enbarazu egin diezaieketen jarduerak egitea.
- Baimenik gabe sartzea zerbitzariantzat edo langileentzat mugatutako instalakuntzetan.
- Arropak edo norbere objektuak uztea horretarako ez diren tokietan.
- Garbitasunaren aurkako ekintzak egitea, esaterako, hormetan idaztea, lurrera errautsak, paperak edo zaborra botatzea.
- Instalakuntza sozialetan kantatzea, oihu egitea eta zalaparta sortzea eta aurreko guztiak kirol eremuetan egitea enbarazu egiteko moduan.
- Edozein instalakuntza erabiltzeko higiene arauak haustea, bereziki igerilekuetan.
- Kirol instalakuntzetan erretzea.

#### **B).- ERDI-MAILAKO FALTAK:**

Ondoko ekintza edo portaerak **errieta pribatuarekin**, Zuzendaritza Batzordearen idazkiarekin, **Klubera sartzea debekatzearekin** eta karneta erretiratzearekin (gehienez ere **HILABETEZ**) zigortuko dira:

- Klubeko zerbitzu edo instalakuntzak behar ez bezala erabiltzea (Esaterako, oinak besaulki edo mahaien gainean jartzea, igarobideetan eta baimenik gabeko tokietan baloiarekin jolastea edota ingurukoekiko gutxiespena erakusten duen beste edozein jarduera).
- Kirol instalakuntzak erabiltzea, dagozkien batzordeek edo Zuzendaritza Batzordeak berauetarako ezarritako arauak errespetatu gabe (esaterako, kirol instalakuntzetara sartzea aldeztatik ezarritako kopuruak ordaindu gabe): frontoiak, ordaindutako sauna, short-court, etab.).
- Klubera onartuta ez dauden sarbideetatik sartzea, babesak behartu ez badira ere.
- Bazkideekiko eta langileekiko ofentsa eta errespetu falta txikiak.
- Klubeko jabetzatik lapurreta txikiak egitea, esaterako, kirol-materiala, kirol-arropak, dutxetako ur-jaurtigailuak, hautsontziak, egunkariak edo antzeko beste edozer.
- Haserre edo zalapartetan parte hartzea.
- Kuoten hartu-agiriak behin eta berriro itzultzea eta beste zerbitzu batzuk ez ordaintzea.
- Falta ARINAK errepikatzea, desberdinak izan arren.

### **C).- FALTA LARRIAK:**

Ondoko ekintza edo portaerak **Klubera sartzea debekatzearekin (HILABETE ETA HIRU HILABETE bitarteko epean)** eta karneta erretiratzearekin zigortuko dira:

- Klubeko bazkide eta langileekiko ofentsak, errespetu faltak eta mehatxuak.
- Eskandalu eta indarkeria ekintzetan parte hartzea.
- Instalakuntza sozialetan horditurik egotea.
- Zuhurtziagabekeria, horrek istripu arriskua badakar beretzat zein gainerako bazkideentzat edo instalakuntzak hondatu baditzake.

- Kalte arin edo ez oso larriak nahita eragitea Klubaren, bazkideen eta hirugarrenen ondasun higigarri edo higiezinetan (adibidez, hormetan idaztea, bonbilak edo antzeko elementuak haustea, etab.).
- Bazkide txartela edo Klubeko bestelako dokumentuak hirugarrenei uztea bazkide itxurak egin ditzaten, edo Klubeko kontrol zerbitzuak oztopatzera eta haiei iruzur egitera zuzendutako beste edozein ekintza egiteko asmoz.
- Iragarki taulak edo kontrol elementuak eta armairuetako zenbakiak aldatzea, etab.
- Klubeko materiala gainbegiratzailearen baimenik gabe hartzea, baimena beharrezkoa den kasuetan.
- Zuzenean edo zeharka, falta larriren bat gauzatzen laguntzea.
- Zigorgarri izan daitezkeen ekintzak argitzeko asmoz Zuzendaritza Batzordeak eskatutako datuak ematera ukatzea.
- Lanean dagoen Klubeko langile batek eginiko oharrei kasurik ez egitea, horretarako arrazoirik gabe.  
Langilerik egon ezean, bazkide batek eginiko oharrak ere maila bera izango du.
- Ozen birao egitea edo hiztegi lizuna erabiltzea.
- ERDI-MAILAKO faltak errepikatzea, desberdinak izan arren.

#### **D).- FALTA OSO LARRIAK**

Ondoko ekintza edo portaerak zigortu egingo dira **Klubera sartzea debekatzearekin (HIRU HILABETE ETA URTE BETE bitarteko epean)**, karneta erretiratzearekin eta gehienez ere 10 urterako gobernu eta ordezkari organoetarako aukeratua izateko eskubidea kentzearekin, edota **KLUBETIK BOTATZEAREKIN**:

- Klubaren, bazkideen edo hirugarrenen ondarearen aurkako lapurretak (adibidez, aldageletatik diru-zorroak, poltsak edo balio handiko elementu pertsonalak eta antzekoak ostea.)

- Bazkideenganako, langileenganako edo hirugarrenenganako hitzezko edo ekintzazko tratu txarrak eta errespetu falta larriak.
  
- Moraltasunaren eta ohitura onen aurkako ekintzak edota omisioak.
  
- Klubeko bazkide izateko behar den dokumentazioan edo Klubak eskatutako beste edozein dokumentutan datu faltsuak ematea.
  
- Kalte larriak nahita eragitea Klubaren, bazkideen zein hirugarrenen ondasun higigarri edo higiezinetan.
  
- Oro har, diziplinaren, moralaren edota ohitura onen aurkako ekintza larriak, Klubari berari eta edozein bazkideri dagokionean, eta beste edozein ekintza, baldin eta bere larritasunagatik eta Zuzendaritza Batzordearen iritziz falta oso larritzat har badaiteke.
  
- FALTA LARRIAK errepikatzea, desberdinak izan arren.

BILBO, 1996ko EKAINA